

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Saltzailearen eta bezeroaren arteko harremana, ez da pertsonala izango, telefono eta webgune bitartekoa baizik. *Zitztool*-ek eskainiko duen zerbitzua, autozerbitzua dela kontuan izanda, harreman zuzenik izan gabe, bezeroak zerbitzua erabili eta automatikoki enpresak informazio jasoko du. Hori dela eta, ez da beharrezkoa izango etengabe harremanetan egotea.

Bestalde, bezeroak arazoren bat izanez gero, enpresako telefonoa eskuragarri izango du, zalantzak argitu eta arazoak konpontzeko. Horretaz gain, webgunean ere *Zitztool*-en inguruko informazioa egongo da eta bertatik ere, kontaktuan jartzeko aukera izango dute eta zerbitzuaren inguruko balorazioa egiteko.